

Santi Brouard

Deia, 1984-12-01.

Mugaz haruntz ezagutu nuen. Frankismoaren barruti ilun hartan anaiak-anai sentitzen ginen aro orlegi hark bazuen tinta oririk, mesfidantzarik eta baita odol gorriaren proba franko ere; baina zauri hauen eta salaketa ustel haien gainetik eta barrutik nabari zitzaion itxaropenak berekin zekarren seinale aberats hura.

Argi honetan ezagutu nuen Santi Brouard Donibane Lohitzunen.

Ez zion Santik frankismoari ihes egin justiziaren beldur: ez zuen inor hil, ez eta ere inori beste kalterik; laguntza eske etxera etorri zitzaion gazte bati zauri txar bat sendatu egin zion. Sendagileari dagokion birtutea bekatu bihurtzearen milagro beltz hau ez zitzaion justuki Santi berari leporatu: bistan zegoen aspaldidanik zuzena zena oker ikustea: garbia zena, zikin; argi zegoena, ilun, eta goien egon ohi zena, beheak jota ikusteko alderantzikatze nabarmena gerra eta gorroto bidetik nola etorri zitzaigun egiaztatzea.

Mendeak ziruditen urteak jadan, eta hiltzailea bera berez hil zenean, ez zen giroa guk nahi bezala berehala aldatu.

Hala ere, eragin batzu dela medio, gureganatu ahal izan genituen berriz hain gureak ziren alor batzuk; ez zen iraultza, baina geure herri-bidean aurrerantz pauso batzu emateko gauza izan ginen. Eta hemen, pauso hauek bitarteko bezala onartzen genituenak eta urrats hauek gutxiesten zituztenak hasi ginen piska bat elkarrengandik urruntzen; beraz, ez genituen Santik eta biok geure ondoren hauek modu berean juzkatzen. Bestalde, bat Bilbon, bestea Hondarribian edo Gasteizen, oso bakan ikusten genuen elkar; baina ez genuen, horregatik, bata bestean genuen sentipena inoiz galdu. Politikaren bideak ez ziren berdinak, baina bidetxurren gainetik somatzen genituen herrikotasunaren eta anaitasunaren bide zabalak gaintitzen zituzten guztiak.

Neuk Santi Brouardengandik pertsonalki gorde ditudan kezkak Euskadi eta euskara izan dira; eta gaur, gorroto zahar eta beltz hark geure artetik eraman digunean, gizon oso, bihotz-zabal eta emakorra da eredu bezala betiko geratzen zaidana.

Eta, nola ez, hainbeste maite zituen Tere, emazte sentibera, poeta hutsa, eta Edurne, Santi eta Tere, senar-emazteek hainbeste maite zituzten beren fruiturik helduenak.